

Gaueko hotza, Hontzaren epelean

GAU BAT DROGAZALEENTZAKO ZENTROAN. Drogazaleek eta Caritaseko langileek gauero bederatzi ordu igarotzen dituzte elkarrekin Hontza zentroan. Tarte horretan, drogazaleek euren burua garbitu, zerbait beroa jan, zauriak sendatu eta lasai egiten dute lo.



MARISOL RAMIREZ/ ARGAZKI PRESS

Gehienez, 22 drogazalek igarotzen dute gaua Caritas erakundeak kudeatzen duen Hontza zentroan.

Gorane Agirre | BILBO

Marjinazioaren mugan, eta maiz legez kanpo, bizimodua atera behar duten drogazaleak, udaltzain eta ertzainek babestuta, eta auzokideen protesten artean sartzen dira gauero Bilbo-ko Hontza zentroan. Iragan abenduaren 10ean, auzokoen gogoz kontra zabaldu zuten drogazealeentzako zentroaz eman den irudia erabat aldatzen da atea igaro ahala.

Zentroan izena eta abizena duten pertsonak dira drogazaleak, «begietara begiratzen digute hitz egiten digutenean». Duta, kafesnearekin galletak jan, zauriak sendatu eta atsenden hartzen dute, euren arrokek ikuzgailu eta lehorgailuan birak ematen dituzten bitartean. EGUNKARIAK ostegunetik ostiralerako gaua igaro zuen Caritas-ek kudeatzen duen Hontzan.

Caritaseko boluntarioak lagunduta, txanda bitan heldu ziren Nerbioi ibai ondoan dagoen Zamakola auzoko zentrorra, gaueko 22:00ak eta 23:00ak bitartean. Ivan lehen aldiz joan da

zentrorra, eta haraino bere kasa heldu da. «A zer nolako iskanbila dagoen hor kanpoan», dio auzokoen protestek harekin zerikusirik ez balute bezala. Segurtasun kontuengatik bertara joateko protokolo bat dagoela azaltzen dio, harrituta, Paulino Caritaseko monitoreak. «Ni hiritan jipoitu naute auzokoek», esan eta bere gauzak egiten jarraitu du Salvadorrek.

Poltsa batean, euren ondasun guztiak eramaten dituzte

Guztira, 20 erabiltzaile etorri dira; horietatik bi emakumeak, eta 20-30 urte bitartekoak. Guztiak, eguraldi hotz eta euritsuari nola edo hala aurre egiteko jantziak datoz: bizpahiru galtzerdi, bata bestearen gainean; alkan-dora azpian beste hiru bat elastiko; ahalik eta txaketa lodiena soinean; eta, galtzen azpian, txandala.

Plastikozko edo kirol poltsak eskuan edo sorbaldan sartu dira, eta haietan daramatzate euren ondasun guztiak. Santurtzi-ko Iñakik ez du poltsarik nahi, «egun osoan gainean eraman behar duzu edo bestela, nonbai-

PERTSONEN MODUAN

Zentroan drogazaleak izena eta abizena duten pertsonak dira, eta errespetuz tratatzen dituzte

ten ezkutatuta utzi. Eta, hala ere, lapurtu egiten dizkigute», dio.

Zentrorra joan baino lehen, askok eguneko azken droga dosia sartu dute, bai baitakite zentroan erabat debekatua dagoela droga kontsumitzea edo banatzea; eta gaua luzea da. Horrela, drogaren efektupean dagoen Gerar lo seko geratu da heldu ahala eseri den lehen aulkian.

Aurretik bederatzi ordu dau-de, 07:00etan zentroa utzi behar dute eta. Garbitu, zerbait jan, eta atsedean hartzeko unea da, egun osoa Bilbon noraezean, diru eske edo txikizkako salerosketak egiten ibili ostean.

Ondasun apurrak plastikozko hamaka gainean utzi, eta dutxatzeko zerrendan jartzen dute izena, ezinbesteko baldintza

baita, erizainaren laguntza jasotzeko. Baina, lehenago gosea asetzen dute, gehienek ez baitute mokadurik jan egun osoan. Eta nabari da. Dozenaka galleta eta bizkotxo jaten dituzte ondo gozatu duten kafesnearekin, bospasei azukre koskor eta hiruzpalau koilarakada ezti bota baitizkiote.

Auzokoek protestekin segitzen dute, baina urrunago

Bigarren gaua da auzokoak zentroko atean bertan kontzentratzen ez direla, Barne sailak debekatu egin baitie. Hala ere, euren protestak helarazi egiten dituzte kazola, kanpai edo txilibituak baliatuta.

Protestak urrunago entzutea ez zaie oharkabea pasatu ez erabiltzaileei, ezta Caritaseko langileei ere. «Atzo eta gaur askoz ere lasaiago daude, lehen oso urduri etortzen ziren auzokoek hurbil-hurbiletik iraintzen zituzten eta», azaldu du Paloma Caritaseko langileak.

Dutxatu, euren arropa garbitzera bota eta Paulino monitoreak ematen dien arropa jantzen dute. Mustafak eta Iñakik,

GAUA IRUDIETAN



ELKARTZEKO UNEA. Gauero, 21:15ean Caritas udaltzainek eta boluntarioek lagunduta zent-



ONETAKO MINA ARINTZEN. Gehienek minberotan sartzen dituzte, erizainak zauriak se-



GAUERDIRAKO, LOAK HARTZEN DITU. Plastikozko edonon egiten dute lo, egun osoan noraezean

berri, ez dute dutxan sartzeko gogorik, eta ur beroa, ospina eta gela bete konketan sartzen dituzte oin zaurituak, urteetan droga xiringatu izanak sortu zirkulazio arazoek kaltetutakoak.

Erizaindegian, Ainarak zauriak sendatzen dizkie, eta tratamenduan dagoenari botika hartu behar duela gogorarazi. Horrela, begia gaizki duen Anjeli ea tantak bota dituen galdetzen dio. Beste txoko batean, xiringen trukaketa egiten dute, erabiltako xiringa bat ekartzen duenari berria ematen diote.

Kanpoan auzokideen protestak baretzen doazen bitartean, barruan erabiltzaileek telebista ikusi edo zerbait irakurtzen dute. Baina, berotasunak sortzen